


01 Bilbo

Hiri zaharra

Hiri modernoa

Hiri berria





Bilbo

Lurraldeko hiruburuak 1300. urtean du jatorria: Diego Lopez Harokoak forua eman zien orduan Nerbioi-Ibaizabalen itsasadarraren bihurgune lau batean kokaturik zeuden Begoñako elizateko auzotar batzuei, eta, hartara, «biztanle-gune eta hiribildu» bihurtu zuen Bilbao izeneko portu hura. Puntu horretan, ibaiaren bi bazterrak lotzeko zubi bat bide zegoen, egurrezkoa baino ez, agian; izan ere, leku ezin hobea zen ibai portu egonkor eta babestu bat ezartzeko, Atlantikoko beste zenbaiten antzera –merkataritza-mundu horrekin harremanetan zegoen–.

Ekimena arrakastatsua izango zen, eta Bilbok berehala hartuko zuen hiriaren itxura: bata besteari erantsitako etxe homogeneoek osaturiko kaleetan antolaturik, auzotarrak udal ordenantza batzuen mendean zirela, lurperatze nahiz elizkizunetarako eliza txiki bat –Done Jakuerena–, merkaturia eta portua zituen. Gerora, kaleak, eliza, zubia eta portua nabarmen berritu eta garatuko ziren. Hasiera-hasieratik merkataritzako eskusibotasun pribilegioak bereganatu zituenek, Bizkaiko beste ezein portuk ez zuen harekin lehiatzeko modurik izango.

Hiru fase nagusi bereiz daitezke Bilboren biografian. Lehenengo merkataritzari dagokio, eta oso luzea da, fundaziotik XIX. mendearen erdi aldera iristen baita. Bigarrena industrial da –eta finantzarioa–, garai horretan hasi eta XX. mendetik XXI.era igaroaldira heltzen da. Hirugarrena gaur eguneko da: industria-jarduna desagertu eta haren osteko krisia gainditu eta gero, jardueraren zabaleko zerbitzu-hiria bilakatu da, eremu horren barruan zerbitzu kulturalak daudela.

Bigarren faseak bere aztarna fisikoa utzi du, zenbait kasutan negatiboa; duela bi hamarkadatik hona, bere onera itzultzeko ahaleginetan dihardu hiriak. Zaharretik onena eta egun egiten ari diren gauzarik modernoak balioztatu ditugu hemen.

01



Aurreko orrialdean:

Guggenheim Museoa. Bilbok munduan duen ikur berria, eta industri garaiaren osteko hirien erakusgarria.

Orrialde honetan:

Udaletxea. Europako hiri gazte (1300) eta bizi baten agintaritza-tokia. Haren aurrean, Oteizaren «esferaren desokupazioa».



Hiri zaharra

Bere agertoki eta paisaia Erdi Aroko hiri batekoa da: ingurune atlantikoan truke gune garrantzitsua izanik, oso hiri antolatua zen, baina bere baitan itoa, harik eta mendebaldera beste hiri modernoago bat eraiki zen arte, Abandoko ibarraren gainean, XIX. mendearen bigarren erdian, hain zuzen. Erdi Aroko hiri hori, merkatarien sorleku, Zazpikaleak izenarekin ezagutzen dugu egun, bizia eta komertziala inondik ere.

Hirigintza

Ez da ia ezer gelditzen hasieran eraikitako paisaiatik, ezbehar naturalengatik (sute eta uholde batzuk), gerrengatik edo modernitate arrazoiengatik Erdi Aroko etxebizitza apalak berrituz joan baitira, gehienbat XVII. mendetik XIX. mendera bitartekoa den etxe multzo bat osatu arte: harrizko edo adreilu luzituzko etxe, etxetzar eta jauregiak, bost solairukoak, behekoa betiere denda jartzeko erabilia.

Baina badira zenbait gauza garrantzitsu gaur arte iraun dutenak: hiriaren trazatua, hots, zazpi kale nagusi, paralelo eta zuzen, zeharkako kalezuloen bidez komunikatuak; hiru errebal historikoak, Bilbo Zaharra, Ibeni (Atxuri) eta Askao-San Nikolas, alegia; lehenengo zabalguneko moduko bat Plaza Barri neoklasikoaren inguruan, eta eliza zaharrak. Harresia, bere atariak eta Erdi Aroko zubia ez dira existitzen gaur egun. Baina

gelditzen denak ondo merezi du bisita lagundu bat.

Udaletxea

San Nikolaseko errebalaren amaierako puntu honetatik abiatzen da hiri zaharreko ibilbidea, i. Gerra Karlistaren amaierara arte Done Agustin komentua egon zen lekutik.

Udal jauregia eraikin etzana da, eta kapitularen ardatzak eraketa horren kontrapisua egiten du. Zinez ikusgarria da erdiko ardatza, bigarren gorputzaren erdialdea arkuen bidez modulaturik duela, zutabe bikoitzen eta harmailadiaren gainean. Xehetasun apaingarri ugariz hornitua, eklektizismo frantses garbienaren adierazgarria da; mugimendu artistiko horrek lehenagoko informazio heterogeneoak hartzen ditu mailegaturik, kasu honetan erregistro monumentalean. Joaquin Rucobaren planoekin lan egin zen, 1883. urteaz geroztik, Bilboko hiri garapenerako funtsezkoak izan ziren egun haietan. Kanpoko aldean busto, medailoi, girlanda eta halakoak errepikatzen dira behin eta berriro; barruan, berriz, luxu neorrenazentistara (eskailearen tarte palladiarrak eta osoko bilkuren aretoa) edota exotismo arranditsura iristen da (areto arabiarra).

Hustutako esfera

Arestian Jorge Oteiza eskultorearen lan monumental bat jarri da udaletxearen aurrean. «Hustutako esferaren bertsio oboidea» Oteizaren ariketa abstraktu ospetsuenetakoa da: gune esferiko bat biltzen duten pletinak.

Areatza

Bilbotarren aisialdirako lekua soroa izan zen askoz ere lehenagotik, itsasadarraren bihurtze bateko hareazko hondartza batean sortu eta beti mehatxupean egon zena. XVIII. mendean, kanapeek (harrizko bankuak), banatzeko burdin hesiek, iturriek eta gainerakoek ematen zioten hiri tankera. Egun baino zabalagoa

zen arren, antzerako planteamendu funtzionalei erantzuten zien, aisialdirako gune eta hiri parke modura.

Musika-kioskoak «art déco» estiloa jasotzen du, Pedro Ispizuaren interpretazioaren arabera. Eklektizismoaren forma kargatuak gainditzen dituen diseinu ariketa egokia da, 1927an dataturiko hiri altzari garrantzitsua. 1985ean zaharberritu zen.

San Nikolas elizak bere irudia ematen dio Areatzako hiri parkeari. Bilboko zinegotziek ez zuten esku-labur jokatu lehengo tenplu xumea berritu nahi



Orrialde honetan:

San Anton. Bilbo zeharkatzean Itsasadarra monumentuen ispilu da: San Antongo zubia eta eliza.

15. orrialdea:

San Anton. Iñaki García Ergüinek lehena eta oraina uztartu ditu erretaula berrian.

izan zutenean, eta Ignazio Ibero hargin gaituari agindu zizkioten planoak, 1743an. Lekua antolatzeko proposamena ezin abangoardistagoa izan zen: lauki batean txertaturiko gurutze greko bat, angeluetako moduluak baxuagoak zituena, sakristia, santutegi eta kaperetarako; kupula bat erdian, eta dorre bana aurrealdearen alboetan.

1891ean sarrera berregingo zen, eta Josep Llimonaren erliebe bat duen tinpanoa jarriko.

Kanpai horma bihurtuak eta dorreetako balkoitoak dira elementurik barrokoenak, barrualdea oso apaindura gutxikoa da eta.

Altzariekin ere ez zuten zeken jokatu, 1752an bost erretaulaz hornitu baitzen: **Nagusia, Pietatea, San Krispin eta Krispiniano, San Blas eta San Lazaro**, guztiak Madrilen kontraturiko proiektu beraren barruan eginak. Haietan, Diego Martínez de Arce trazatzaileak eta Juan Pascual de Mena eskultoreak berek hartu zuten parte. Bigarren mailakoek lau exedrak betetzen dituzte. Marrazketa mugitua, arrokaia, gerri eta zintzilikarioek osaturiko apaingarriko errepositorioa eta tailen kalitate handia ikusirik, multzo rokoko bikaina da Bilboko San Nikolas, ezberrik gabe.

Arriaga antzokia. Lehenagoko beste antzoki baten orube berean eraikita, dekorazio eklektizismo frantziarra berragertu zuen 1886an: kariatideak, aingeru irudiak eta girlandak. Lau solairuko besaulki patioko dekorazio oparoa, joera barroko sabaia barne, goitik behera berregin behar izan zen –Federiko Ugalde, 1916–, sute batek aurreko guztia errausi ondoren. Joaquín Rucobak, udaletxearen egile berberak, marraztu zuen Arriaga antzokia ere, gaur egun XIX. mendeko antzoki arkitekturaren proposamen handitzat hartzen dena.

Erribera

Ibaiaren eta harresiaren artean ozta sarturiko bazterra zen Erriberakoa; hiria

sortu zenetik ia-ia, merkatuaren eta plaza zaharraren kokalekua izan zen, San Anton eliza eta, 1680tik 1896ra, udaletxea gailentzen zirelarik.

Erriberako arkupea. Laster batean inguruko partikularrek leku pribatua zabaldu nahi izan zuten, zutoinetan oinarrituriko hegada-atalak plazarantz atereaz; gerora, horma botatakoan, arkupe jarraituak bilakatuko ziren, eta bertan saltokiak irekiko ziren. Lehenengo sekuentzia da zaharrena –Harategizar kaletik Belostikalera–, XVII. mendekoa, eta ia gainerako guztia XIX. mendeko konponketak dira.

Merkatua. Plazak interesa galdu zuen gerora, udaletxe zaharra eraitsi eta lekuz aldatu zenean. Baina merkatuak bertan jarraitu zuen, oholzapeko saltokietan. Azkenean, 1927az geroztik eta Pedro Ispizuaren proiektuarekin, egungo merkatua eraikiko zen, solairu biko eraikin arrazionalista izanik ere, hiriaren alde hau bahitu zuena. Plaza zahar hura izan zen Bilbo zaharraren ikonografiarik jator eta maitatuarenaren agertokia.

1991n eta, geroago, 2002an, arkupea birgaitu, eta sabaia margotu ziren, atseginagoak izan zitezten. Bertako zenbait artistak (Zalbidea, Sanfelices, Cañada eta abar) hartu zuten parte, panel alegorikoak eginez.

San Anton eliza

1882an harrizko zubi zaharra desagertu zen, eta horrek interes apur bat kendu zion; izan ere, hainbat urtetan elkarri loturik bizi izandakoak ziren, bien artean hiriaren ikono historikoa osatzeraino.

Oinplanoa ia karratua da, habearte nagusiak ez baitu burualderik, eta lau tartetan antolaturik dago, sabaian gurutze ganga gotikoak dituzten «kaperetarako». Aurrealdean horma nagusiaren triforioa gailentzen da –habearte nagusira ematen duen galeria perimetral eta estua–; erabide horrek agerian jartzen ditu eliza honek inguruko beste batzuekin dituen harremanak.



Portalea errenazentista da –Martin Garitak 1544an marraztua eta Guiot de Beaugrant-en taldeak landua–, eta kanpandorra barrokoa –Juan Iturburu, 1775–; horiek izan ezik, gainerako guztia gotikoa da, xv. mendearen amaierakoa, 1478an hasia, hain zuzen.

Erretaula nagusia. Errestaurazioko obrak orain dela gutxi amaitu ziren, lehenago izandako eraikuntza-lanen aztarnak agerian uzten dituen araketa arkeologikoa eginik; lanen amaiera ospatzeko, erretaula berria egin zen, Esteban Velascok 1593an egindako erretaula erromanistatik datozen tailla eta erliebeak eta Iñaki Garcia Erguinen margolan modernoak uztartzen dituen.

Atxuri

Errebal apal honetan –lehenago Ibenikoa da–, badira ondare elementu interesgarri batzuk.

Ospitale zaharra. Eraikin zibil honek bertan kokaturiko Erdi Aroko beste baten sorospen lan berak bete zituen 1818az geroztik, Bilboko harresitik kanpo, hondaturik zegoela-eta 1769an abandonaturiko Joanes Santu Biak elizan. Gaur egun ikastetxea da, eta bere garaian oso ospitale arrazionalizat hartu zen, hiru galeriak hegoaldera orientaturik baitzituen, eta erabide hori guztiz higienikoa baitzen eguzkiztatu eta egurasteko. «Gaixoengizate» eta eraikinaren bikaintasuna bateratzeko asmoa benetan gauzatu zen, eta, agerikoa aipatzearren, lau zutabeko portale monumental klasiko-neoklasiko-toskanarra dauka, hiriari begira. Lehenengo begiratu batean nekez ikus daitekeen arren, bebarru dintelduaren gorputza apur bat biraturik dago, Gabriel Benito Orbegozo trazatzaileak ongi pentsaturiko perspektiba-ariketa.

Joanes Santu biak iturria. Zubi zaharrari eta San Anton elizari loturik egon zen, ingurua edertuz eta kaian edateko ura hartzeko aukera emanaz. Estilo neoklasikokoa da; hormako bertsio honetarako –Done Jakue plazatxokoa ere



halakoa da–, Luis Paretan diseinua erabili zen, 1785ean. 1882an, zubia eraitsitakoan, plazatxora aldatu zen.

Garcia Rivero eskola-multzoa. Eraiki zen garaian (1928, Pedro Ispizua), ikastetxe publiko ugari egin ziren Bilbon, eta arkitektoek askatasun handia zuten. Bilboko eskola bikain honetan, hainbat eragin elkartzen dira, baina dorreetako kantabriar joera erregionalista da nagusia. Horrez gain, azpimarratzekoak dira bolumen jokoa, kolorea eta jolastokiko burdin hesia.

Atxuriko geltokia. Hemen ere kantabriar joera erregionalista da nagusia, baina ez hain modu nabarian; areago, dorrea euskal kanpandorre herritarren baten bertsioztat har daiteke. Manuel Maria Smith-ek marraztu zuen, 1912an.

Gizakundea. Lekaime domingotarren komentu hau 1515ean hasi zen, baina 1544ra arte ez zen portalara iritsi; fatxadaren goiko aldera eta dorrera, berriz, 1690an iritsiko zen. Estilo errenazentistakoa eta gurutze-gangaduna izanik, eraikin monumentala da, eta «Errege-erregina Katolikoak» motakoa izateko pentsatuta dago, hots, gurutze forma eta pasabideen bidez loturiko kapera baxuak izateko; zoritzarreko esku-hartze moderno batek, ordea, espiritu hori aldatu zuen, eta kaperak habearte bihurtu zituen trakeski.

Fatxadak du osperik handiena: erdian nitxo edo horma-hobi handi bat du, eta tronpek alakaturiko bi kale diagonal; izatez, Salamancako San Esteban komentukoaren kopia da, eskalan egina, bertan Juan de Álava maisuaren laguntzaile jardun baitzuen honako honen trazatzaileak, Frai Martin Santiagok, alegia. Domingotarren ordenak harreman onak izan zituen betiere Salamancarekin eta Albako etxearekin.

Elizari atxikita, klaustro bat dago, arku errenazentistez hornituriko bi korridore estali dituena; 1995. urteaz geroztik, Eleiz Museoaren egoitza da.

Erronda kalea

Zazpikaleetara itzultzean, Erronda kalean sartzen gara, hiriaren harresitik kanpo. Ezkerraldean, balio handiko lekuko arkeologikoak ikus ditzakegu: Erdi Aroko harresia eta jatorrizko lur-zatiketa gotikoa –oso orube estu eta sakonetan txertaturiko etxeak–.

Eta horrez gain, harrizko etxetzar eta jauregiak, era askotakoak, hala nola 1864an Miguel Unamuno jaio zenekoa.

Katedrala

Done Jakue katedralak Zazpikaleetako erdigune geografikoa hartzen du, baina ez zen beti hala gertatu, 1300ko hiri gutunean aipaturiko jatorrizko tenplua itsasadarretik urrun samar baitzegoen, zuhurtziaz. 2000ko osoko errestaurazioaren aurreko indusketetan agertu zen eraikin hori, eta oso xumea zen. Hain zuzen ere, lehenengoaren errausketa da egungoaren jatorria –1374–. 1379rako zehazturik zegoen perimetroa, finkaturik zeuden pilareak, seinalaturik ateak, eta eliztarren artean banatzen hasita hilobiak.

Hiru habearte ditu, kapera baxu pribatiboak estribuen artean, girola bat burualdearen inguruan, lau tarte eta gurutzaduraren gorputza. Gune horiek zehazteko, pilare biribilak ditugu, kapitel lisoaz hornituriko zutabetxo ezarriak dituztenak. Altxaeran tarte gotikoa errespetatzen da: hiru mailatan antolatzen dira arkuak, habearteen, triforioaren eta leihoen artean. Sabaian izar gangak baliatu ziren, gurutzaturiko nerbioak zituztenak, eta bitxia da girolaren tarteetan antolamendua, trapezialak eta errektangeluarrak txandakatzen baitira.

Iparraldean klaustroa dauka, portale bikainaz hornitua; hegoaldean arkupe handia dauka, eta, haren baitan, arkioltoa landuak dituen portale aberatsa, gurutzaduran irekia.

Estilo gotikoaren barruan xiv. mendearen amaierako datak dagozkio;

16. orrialdea, goian:

Atxuriko iturria, plazatxo honetara aldatua. Luis Paretan lan neoklasikoa (1785).

16. orrialdea, behealdeko ezkerrean:

Katedrala. Aingeruaren Atea (XVI. mendeko gotiko berantiarra), harriz landutako aurrealdea.

16. orrialdea, behealdeko eskuinean:

Katedrala. Albo-atea (1415 inguru), gotikoaren ale bikaina.

1430erako amaiturik zeuden zatirik funtsezkoenak. Burgosko katedralarekin (euskarri mota) eta Europako beste batzuekin (girola) zerikusia izanik, euskal eskola erregionalistaren burua da, triforioagatik.

xvi. mendearen hasierako gotiko berantiarrari dagozkio, bestetik, klaustroa –1924an errestauratu zen– eta bere «Aingeruaren portalea», azken hau ere errestauratua eta Olabe anaiek Gueñesko Andra Maria elizan egindakoaren oso antzekoa.

Seberino Atxukaroren proiektu batek (1880) fatxada berregin zuen; estilo gotikoa (neogotikoa) jasotzen badu ere, erabat aldatzen du jatorrizko itxura.

Katedralak ez du gorde Guiot de Beaugrant franko-flandestarrari 1533an kontraturiko erretaula nagusi baliotsua, baina bai haren tailletako batzuk, zenbait altzari eta kaperetan ikus daitezkeen altxor artistiko batzuk: arkosolio eta hilobi gotiko eta errenazentista batzuk; Pilareko Andra Mariaren tailla bat (Beaugrantena, hain zuzen, Maitasun Onaren Kristorena bezala); San Antonen beste tailla bat, flandestarra eta xv. mendearen amaierakoa; San Diego Alcalákoarena, barrokoa; Mendexatik datorren harrizko sagrario aberats bat; Done Jakue erromesa; Pérez Comendador-en egurrezko tailla bat (1955); Jesus Guridi organoa, Pellerin & Uys deritzonak Dax-en (Frantzia) egina, 2002an, eta abar.

Done Jakue plazatzoko iturria Harri noblean landutako eta gurutze formako elementu exentua da, pitxer handi batekin koroatua eta idazkUNETARAKO panelekin aberastua. Colon de Larreategi korrejidore ilustratuak Bizkaiko hainbat herri zerbitzuz hornitzeko egindako ahaleginaren emaitza da, eta Luis Paret gorteko margolariaren proiektua, garai hartan –1785ean– Bilbon bizi baitzen.



Orrialde honetan, goian:

Santiago Plaza. Hemen egiten zen, Erdi Aroan, Bilboko merkatua. Iturria Luis Paretok egina da (1785).

Orrialde honetan, behean:

Plaza Barria. Hiriko areto publikoa, arkupeak inguratua. Egileak, Silvestre Pérez akademikoak, arkeologismo erromatarra atsegin zuen.

19. orrialdea:

Juan Santuak. Kristo Gurutze Santukoa, lan errenazentista. Juan de Beaugrantek irudi adierazkor hau tailatu zuen bertako penitentzi kofradiarentzat.



Txakur kaleko iturria

Done Jakue plazatzotik oso hurbil, hormako iturri hau oso interesgarria da: arku banak taxaturiko hiru kaletan antolatuta dauka pantaila, egiptoarren estiloan, brontzeko txorrotak bezala, «nemes» apaingarriez hornituriko lehoi buruak –ez txakur buruak–; harraska, ordea, erromatar sarkofago estrigilodunen imitazio estuagoa da. Elementu berri honen datari –1800– zor zaio haren arkeologismoa.

Joanes Santu biak eliza.

Jesuitak Espainiatik kanporaturik –1767an–, lehengo San Andres ikastetxearen elizara aldatu zen, 1769an, Ibeniko Joanes Santu biak eliza, ordurako hondaturik baitzegoen.

Harresitik kanpo, Zamudioko Atearen inguruan, ikastetxe bikaina eraiki zuen Jesusen Lagundiak; instalazio horietatik, elizak eta klaustroak diraute. Aita Ramírez izeneko jesuita batek marraztu zuen eliza, 1617an; agidanean, ondo ezagutzen zuen Juan de Herrerak Valladoliden egindako katedralaren ondoriozko klasizismo gaztelaua: portale zutabeduna, indar handikoa eta apaindura gutxikoa. Barrualdean, jesuiten sistema funtzionalaren araberakoa da: gurutze formako eliza izanik, tribuna jarraituak ditu kapera baxuen gainean –egun, alboko habearreak–, eta adreiluzko gangak.

Gurutzaduraren ingurua, oso kupula behertuarekin eta burualdearekin, 1672an amaitu eta gero, oso ondo ematen du jesuiten estiloko tenplu kontrarreformistaren irudia. 1983ko uholdeen ostean errestituratu zen.

Ikastetxearen klaustroak hiru solairuko lau korridore ditu, erdi-puntuko arku-sailez eratuak. Gaur egun Euskal Museoaren egoitza da.

Erretaula nagusia. Estilo barroko churriguereskoko altzaria da, landareekin dekoratua eta mahatsez beteriko zutabe salomonikoek modulatuak. Eskultura eta margolanek horniturik dago, eta erdiko

parteak Done Joanes Bataiatzailearen tailla rokoko bat jartzeko aldatu zen, parrokia bihurtu zenean. Margolanak hauek dira: San Ignazio Loiolakoaren eta San Frantzisko Xabierkoaren oihalak pedrelan; Done Petri eta Done Paulorenak gorputzean, eta San Agustin eta San Domingo Guzmanenak atikoan. Goian aipaturikoaz gain, San Frantzisko Borjaren tailla bat dago. 1688an, hura bukatzeko konpromisoa hartu zuen Martin Zalduak, Juan Etxebarriaren marrazketa baliatuz. Margolanak Martin Amigorenak izan daitezke.

Vera Cruz Kristo eta Andra Maria Doloretakoaren erretaulak. Vera Cruz kofradiarenak, ia berdinak dira, eta tenplu honetara ekartzean aldatu ziren. Kale bakarrek dira, salomonikoek eta atikoak markozaturik. Lehenengoa gurutzefika errenazentista bikain batentzat, ustez Juan de Beugrant-ena; eta bigarrena, Andra Maria Doloretako batentzat, Madrilen 1693an erositakoa, Raimundo Capuzi agian. Josef Eguzkizak eta Josef Munarrirek egin zituzten mazoneriak, 1696an eta 1694an, hurrenez hurren.

Karmengo Andra Maria, Done Joanes Bataiatzailea, San Luis Gonzaga eta San Josefaren erretaulak. Estilo, tipologia eta garai berekoak dira guztiak. Santiago Castañosek kontratatu zituen lehenengo biak, 1683an; marrazketa Juan Etxebarriarena zen. San Luis Gonzagaren tailla rokoko zoragarria Luis Salvador Carmonarena da ustez.

San Rafaelen erretaula. Antonio Mazarredok 1747an emandako San Rafaelen tailla batentzat.

Jesusen Bihotzaren erretaula. Altzari protorrokoko da, 1742an datatua. Erdiko agertokiaren zerbitzuan dago dena; bertan ispilu izpien pirrinta irradatzen duen Bihotza dago. Erretaula hau guztiz berri eta berezia da, bere tipologiagatik.

Santutxoko gurutzefika. Sarreran dago, eskuinaldean. 1917 arte hiriko santutxoan egon zen. Tailla hispanier-flandestarra da, oso errestituratuak.



Plaza Barria

Euskal Herriko Ilustrazioko hirigintza-proiekturik garrantzitsuenetakoa da; Silvestre Pérezek diseinatu zuen, 1821ean, Gaztelako plaza nagusien tradizioari jarraituz. Aukeraturiko lekua: hiriaren harresitik kanpoko gune andeatu zabala. Emaizari espiritu ilustratua dario, funtzionaltasuna eta dotoretasuna uztartzen dituela; dotoretasuna «erromatar erara».

Lau korridore arkudunek zehazturiko errektangelu handia da; pilareen gainean bermatzen dira arkuak, aurrealdean erromatar erako doriar zutabe erdiak dituztenak; eta gainean, etxebizitzetarako hiru solairu daude. Oso diseinu erregularrekoa da guztia, salbuespen bakar batekin –oso neurtua bera ere–: Aldundiari gordetako parteko pilastra leunak eta armariaren apaingarri apala.

Plazak epe laburrerako konponduko zuen Bilboko etxebizitza-gabezia. Merkataritzarako eta herri jaietarako ere pentsaturik zegoen arren, denbora luzea beharko zuen zeregin horietan plaza zaharrarekin lehiatu ahal izateko. Geometriko, uniforme eta hotza, Zazpikaleetako erdigune eta bihotza da egun.

Hiri modernoa

Bilbo bere mugen barruan itorik zegoela, ez zen nahikoa izan Plaza Barriaren inguruan XIX. mendearen erdialdea baino lehen egindako zabalkuntza, hiriaren luze-zabala ia bikoiztu zuen arren. Arazo larri horren konponbidea aspaldidanik zegoen pentsaturik: Abandoko elizatea urbanizatzea. Eta bertan sortuko zen hori moderno, zabal, lau eta eroso.

Huts egindako proiektu batzuen ostean, 1876an onartu zen Bilboko zabalgunearen behin betiko plana, Nerbioi ibaiaren behealdeko industrializazioa indarrez sortzen ari zela. Seberino Atxukarro arkitektoak eta Pablo Alzola eta Ernesto Hoffmeyer ingeniariak sinaturik, hainbat zabalkuntza izango zuen gerora, lehenengoa 1904an. Garai hartan nekez pentsa zitekeen

Orrialde honetan:

Foru Aldundiaren Jauregia. Abantoko inguru leun eta zabala orube egoki bilakatu zen eraikin monumentaletarako.

21. orrialdea:

Farola. Edergarriez erruz hornitua, batzuetan gainezka eta Frantziako erara (J.B. Darroguy, 1903).



amestutako hiri berria ere ez zela nahikoa izango, edota Bilbo ekonomiaren garapen prozesu hain handiaren burua izango zela eta horrek inguruko herri askoren itxura landatarra betiko aldatuko zuela.

Kale Nagusitik –bera zen erdiguneko bidea– abiatu eta ortogonalki antolaturiko hiribide zabalak trazatzea zen planaren funtsa, eta, horrez gain, plaza zentral batean gurutzatzen ziren bi kale diagonal handi egitea (Ertzilla eta Elkano). Geometria horrek, hots, etxe uharte itxiekien trazaturiko kale eta lerroek nahitaez errespetatu beharreko gune gutxi aurkituko zituzten, Abandoko Done Bikendi Martiria eliza, kasu.

Hau da goraldiaren hiri moderno eta burgesa, industriari, meatzaritzan, eta finantzetan itzelezko kapitalak bildu zituzten enpresaburuen sorlekua, langileak goiko auzoetan eta errebaletan zokoratu zituen, lurrekin espekulatu eta, industriak gehiegi urrundu gabe, trenbideak erdiraino bertaraino sartu zituen. Gaur eguneko hiri berriak gune horietako batzuk beren onera ekarri beharko ditu, modernitatearen oldarrak eragozpenak ere sortuko zituen eta.

Baldintzapenak aintzat harturik, aho batez goraipatu dira kaleen trazaketa eta eraikinen kalitate eta askotarikotasuna. Abandoko erabidea urbanizazio antolatu soiletik gora heltzen da.

«Sociedad Bilbaina» elkartea

Areatzako zubitik abiatzen da ibilaldia, eta hau da aipatu beharreko lehenengo eraikina. Alaka egiten du Bailen eta Nafarroa kaleen artean, eta bere jatorriak Bilboko gizarte burgeseko klub ingelesan eran ulerturiko jolas eta aisiarekin du zerikusia. Egileak –Emiliano Amann, 1909– Sezesio estiloko eraikin bikaina trazatu zuen, modernismoaren aldaera europar bat Bilbo kosmopolitan.

Santanderko geltokia

Bailen kaleko 2.ean kokaturik, «La Concordia» izenarekin ere ezagutzen da Seberino Atxukarro arkitektoaren eta

Balentin Gorbeña ingeniariaren lan hau (1894). Harrizko zutabe saila duen «loggia» luze bat irekitzen da nasara, hiri zaharraren gaineko behatoki aparta; atondoak burdinazko, kristalezko eta zeramikazko fatxada zabala dauka.

Diego Lopez Harokoaren estatua

Bilboren fundatzaileari gorazarre egiten zaio Plaza Biribilean, ohorezko monumentu klasiko batekin: marmolezko idulki garaia, brontzezko erliebe narratiboak dituen, eta eskultura exentua, brontzezkoa bera ere eta gorputz osokoa, gainean Diego jauna duela, hiri gutuna emateko «jarrera noble eta baretsuan». Mariano Benlliurek egin zuen, eta 1890ean inauguratu zen.

BBVAren egoitza

Lehenago «Banco del Comercio» era-kundearena izan zen (Kale Nagusia, 12); Bilboko finantzen inguruan –«City-a»– dagoen eraikinik monumentalenetakoa da. Izkina egiten du, eta bereziki nabarmentzen dira ordena erraldoiko bi zutabe sailak eta alaka gisako akabera, Merkurio jainkoaren brontzezko irudia duena. Izan ere, estilo klasizista monumentaleko eraikina da, Pedro Guimónnek sinatua (1919); Moises de Huertak, berriz, alakako eskultura egin zuen (1922), Joan Boloniakoa antzeratuz.

Foru jauregia

Plaza Barriko egoitza zaharra utzi eta gero, Luis Aladrenen proiektuaz egin zen (1890), Kale Nagusiko 25.ean. Eklektizismo monumentala izan zen aukeraturiko lengoia, formei nahiz dekorazioari dagokionez hainbat adierazpide ezberdin uztartzen dituen, barrokoa eta errenazentista, batez ere. Eraikina, azken buruan, lan monumentala da, eklektizismo frantsesaren tankerakoa: «Gran Art» delakoa, Bilboko Kale Nagusira ekarria. Farolak, marmolak, iztukuak, egur nobleak, beirateak, sabai margotuak,



zeramikak, altzariak eta abar, guztiak dira garaiko eskulangile eta artistarik trebeenen lanak, eta estiloari dagozkion luxu eta dekorazio kargatuaren testuinguruan kokatzen dira.

Carlton Hotela

Moyua Plazako 2.ean, Bigarren Inperio frantseseko estiloa dakar Bilbora, Europako hotel arkitekturan oso ohikoa dena. Manuel Maria Smith-ek marraztu zuen (1919), erregistro estilistiko hau ere menderatzen baitzuen. Oso estimatua da beirateek estaliriko atondo eliptikoaren kromatismoa.

Montero etxea

Auzotar-etxea da, izkinan kokatua, Errekalde zumarkaleko 34.ean. Ezin hobeto erakusten du modernismoaren aldaera katalan aberatsa, eta horrek Gaudírena delako uste okerra zabaltzen lagundu du. Egia esan, Jean-Baptiste Arrokiren proiektu bikaina da (1902), barruan oso egitura soila gordetzen duena. Interesa fatxadan dago gehienbat, agerian uzten baitu estilo modernistako ornamentazio ariketa.

Txabarri jauregia

Moyua Plazako 5.eko lurzati ezin hobean kokaturik, exotiko gertatzen da Bizkaian, estilo arrotz bat ekartzen baitigu, flandestarra, alegia. Egin-eginean ere, Flandes edo Hansako jauregi errenazentista aberats bat ekartzen digu gogora: materialen konbinazioa, pinakuluak, hormapikoak eta abar. Paul Hankar belgiar arkitekto ospetsuak marraztu zuen, Bitor Txabarri enpresaburuaren enkarguz (1889).

Sota etxea

Kale Nagusiko 45.ean; oso diseinu konplexuko eta kantabriar estilo erregionalistako auzotar-etxe handi-ederra da, Manuel Maria Smith-ek egina, 1920an. Dorreak, egutera arkudunak eta erremateetako pinakuluak dira eraikin honen estiloaren ezaugarriak.



Orrialde honetan, goian:
Parkeko iturria musikaren alegoriekin apainduta dago, Aureliano de Valle musikariaren oroitarria ere badelako.

Orrialde honetan, behean:
Parkeko pergola (1927). Pedro Ispizuak elipse itxurako arrosadi luzexka eta zeharkagarri bat asmatu zuen.



23. orrialdea, goian:
Campos Antzokiaren xehetasuna. Frantziako eragina hemen ere ageri da, fatxadako estukozko apaingarrietan.

23. orrialdea, behean:
Campos Antzokiaren xehetasuna. Musikaren alegoria bat fatxadan. Daniel Zuloagaren zeramika-lana.



Areiltza Doktorearen zumarkaleko 10.eko etxea, eta Kale Nagusiko 69-71.ekoa. Formalki antzerakoak, lehenengoa –materialen leuntasuna– gerra aurreko arrazionalismoari dagokio (Pedro Ispizua, 1935), eta bigarrena –ageriko adreiluzko lauza txikien erabilera masiboa– gerra ostekoari (Jose Maria Saenz de Agirre, 1938-1943).

Casilda Iturrizar parkea

Zabalgunearen 1876ko planean aurreikusitakoa baino leku txikiagoa izan zuten Ricardo Bastida arkitektoak eta Juan Egiraun ingeniariak parkea trazatzeko –1907–. Eredu erromantiko-etan (urmaela eta bide bihurriak) eta frantsesetan (zumardi zuzenak eta iturriak) inspiraturik, eredu frantsesa gauzatzeko eragozpena izan zen inguruko orografia, sakonune bat zuela. Lorategi eklektiko bat izan zen emaitza, gerora apaingarri publiko osagarriekin aberastuz joan zena: **Pergola**, arrosadi obalaz edertua, Pedro Ispizuak 1927an egina.

Aureliano Valleren iturria, pilono eskulturadunak eta alegoriez hornitua, Quintín Torre eskultorearen lana (1920).

Pasabideko iturria, Ricardo Bastida arkitektoarena (1914).

Casilda Iturrizarren monumentua, molde tradizionalistakoa, Agustín Querol eskultorearena (1905), idulki alegoriko modernista duena.

Inguruan, modernitate itzeleko beste iturri bat dago: **Musikaren Musa**, Arriaga musikariaren omenez egina eta Arte Eder Museorearen urmalean kokatua, Francisco Durrio eskultorearen ideia (1905).

Jesusen Bihotza

Kale Nagusiak 1600 m-ko luzera du, gutxi gorabehera, eta amaieran, plaza baten erdian, Jesusen Bihotzaren monumentu handia jarri zen: harrizko idulki garaia, eta, gainean, brontzezko irudia. Pedro Muguruzak eginiko fustea, estilo neoerdiararrekoa, zaharkitu samarra zen bere garaian bertan (1924),



Lorenzo Coullaut-Valeraren estatua bera bezalaxe. Arestian errestauratu da. Bere balio nagusia ez da artistikoa; bai, ordea, hiri modernoko funtsezko mugarri urbanoa izatea.

Jesusen Lagundiaren eliza

Urkixo zumarkaleko 7.ean kokatua, desitxuraturik geratu zen, erortzeko arriskua zela-eta dorreetako orratzak kendu zirenean. Jose Maria Basterra egileak (1887) gotiko frantses klasikoa proposatzen du, kromatismorako joerarekin kasu honetan, materialen nahasketagatik: fatxadako adreilu gorria eta harri zuria Gainera, barrualde guztia margotu zuen frantziar moldean.

Campos antzokia

Bertendona kaleko 5.ean dago. Fatxada modernista dekorazio osagaia da gehienbat, eta oso interesgarria, xehetasun exotiko batzuk biltzen baititu, hala nola balkoiak eta haien gaineko baoak –arkitektura hindua ekartzen dute gomutara–. Jean-Baptiste Arroki Iparraldeko arkitektoak marraztu zuen, 1901ean, eta Daniel Zuloagak zeramikazko panelak egin zituen. Balio plastikoez gain, orduko gizarte burgesaren indarra adierazten du antzoki honek, Zabalgunean bakarturik, jaigune mundukoia eskatzen zituen burgesiaren indarra. Hainbat urtetan itxita egonik, barrualdeko zenbait apaingarri desagertu egin dira; arestian birgaitu da.

Bosgarren parrokia

Iturriza kaleko 4.ean (Hurtado Ametzaga), mehelin hormen arteko orube batean trazatu ahal izan zuen Luis Landetxok, 1890ean, San Frantzisko Asiskoa eliza, Bizkaiko estilo neoerdiararreko interesgarrienetakoa. Zabalburu familiak sustatutakoa izan zen, interesak baitzituen inguruan, Bilbo amaitu eta meatzeak hasten ziren lekuan. Egokiro mailakaturiko hiru habearte ditu; fatxadaren albo bietan dorre bana dauka, orratz garaiak dituztenak,

frantziar katedral gotikoen moldekoak. Materialelek (hareharri landua) eta elementu osagarriek, kanpotik nahiz barrutik, agerian uzten dute proiektuaren garrantzia. Iraultza ondoko hazkunde demografiko eta jaiera erlijioso handiko testuinguruari zor zaio Bilbon XIX. mendearen amaieran hainbeste tenplu sustatu izana. Arestian errestauratu da.

La Alhóndiga

Etxe uharte oso bat hartzen du, Urkixo, Fernández del Campo, Errekalde eta Iparragirre kaleen artean; Ricardo Bastidari agindu zitzaion eraikina, 1904an, ardo biltegia izateko. Eraikin bikaina lortu zuen, adreilua eta harria konbinatuz eta modernismoa zuhurki baliatuz –bao nagusiak eta izkinetako dorre kupuladunak–. Berritasun handia izan zen Bilbon sala hipostiloa, barrualdea modulatzeko zuten hormigoizko piloteek sostengatua; gaur egun, ordea, nekez antzeman daiteke, eraikina barrutik hustu baita, beste helburu batzuetarako erabiltzeko.

Albia

Elementu interesgarri bat baino gehiago agertzen zaizkigu Abandoko elizate historikoaren erdiguneko zelaian eta haren inguruan (1890ean irentsiko zuen Bilbok):

Done Bikendi Martiria eliza: altuera bereko hiru habearte eta bost tarte ditu, eta zortzi zutabe toskanarretan oinarrituriko izar gangak. Bere generoan, zutabedun euskal tenpluaren adibide interesgarria da, areto eliza edo «hallenkirche» bat; 1556an hasi zen (portalea, Juan de la Peña), eta 1650ean amaitu zen (zutabeak eta gangak, Martín Ibáñez de Zalbidea), planteamendu errenazentistak mantenduz. Euskal Herriko zutabedun areto eliza errenazentisten metafora egokia da Done Bikendi Martiriarena.

Estilo isabeldarreko egur polikromatuzko mazoneria da **erretaula nagusikoa**, Juan Blas Hormaetxek 1860an marraztua.



24. orrialdea:

«La Equitativa». Azaleko egitura leunekoa, arrazionalismoaren ereduaren arabera.

Orrialde honetan:

Guggenheim (F. Ghery, 1991). Neoorganizismoa lerro bihurriez marraztua. Titanioak zilar antzean agerrarazten du museoaren gainazala.



Gainerako erretaulak antzerako irizpideari darraizkio, gerora.

«La Equitativa» eraikina: Mazarredo zumarkaleko 7.ean. Gerra aurreko arkitektura arrazionalistaren ariketa guttiz interesgarria: paramentu zuri leunak, terraza-gisako estalkiak, bolumen maklak eta leihate etzan zabalak. Manuel Galíndezek egin zuen, 1935ean.

Antonio Truebaren eskultura: plazaren mutur batean dago. Omen-duaren eskultura ezaguna, jesarrita eta jarrera baretsuan dagoela. Seberino Atxukarrrok idulki baxua marraztu zuen, eta Mariano Belliurek eskultura bera egin zuen (1895). Monumentu berritzailea izan zen, Antonio Truebaren irudi gizatiarra erakusten baitzuen, hankak gurutzaturik.

Ibaigane jauregia

Mazarredo zumarkaleko 23.eko lurzati batean bakarturik dago. Jauregi burges urbano hau Sota familiarena izan zen, eta gaur egun Bilboko Athletic Clubena. Ondo biltzen ditu Euskal Herriko estilo arkitektoniko erregionalistaren planteamenduak –xx. mendearen bigarren eta hirugarren hamarraldietan garatu zen, batez ere–. Jauregiaren eta euskal baserriaren arteko hibrido honetan, azpimarratzekoak dira, batetik, arku beheratuko ezkaratza eta goiko gorputza, bilbadura faltsuez hornitua, eta, bestetik, eskailera, balkoiak eta ertze-tako armariak. 1898koa da, data goiztiarra, eta Gregorio Ibarretxeren lana da.

Hiri berria

xx. mendea amaitu baino lehen prest zeuden XXI. mendeko hiriaren oinarriak, Bilboren bizitzaren hirugarren fasea: industriarekin, meatzaritzarekin eta finantzekin loturiko hiriaren izaera gairiditurik, zerbitzuen eta kulturaren erdigune eta metropoli bilakatuko zen, azken hauek baitira goraldi berriaren formak.

Bilboko gizarte industrial lehiatsuak eraikitako hiri modernoak hainbat oztopo laga zituen; halakoak ezabatzekeo prozesuan, zenbait industria (Echevarría, Begoñan) eta ontzigitza-jarduera (Euskalduna, ibai ertzean) desmuntatu behar izan ziren. Hain zuzen ere, bigarren ingurune hori hartu zen hiria bere onera ekartzeko funtsezko gunetzat, lantegiz eta biltegiz jositako ezker ibarra berreskuratuz. Beste ingurune batzuetan ere esku hartu da: Zabalgunearen zabalkuntza eta Errekalde eta Irala auzoak banatzen zituen Ametzolako eremu zabalean –garai batean tren jardueretara emana–, edota, behin meatzeak agortuz gero, Miribilla-San Adriango eremu izugarri zabalean, adibidez.

Azken bi zona hauetan, parkeak eta etxe multzotan antolatutako urbanizazio edo auzuneak dira nagusi –benetako hiri berriak–, eta lehenengoan, berriz, antolamendua mistoa da (kultura-ekipamenduak eta etxebizitzak, merkataritza-, ostalaritza- eta bulego-zerbitzuak nahiz aisialdikoak). Horrez gain, protagonismo handia hartu du hiri pasealeku batek, hainbat eskulturaz eta ibaiaren bi ertzak lotzen dituzten zubi eta zubitxo hornitua.

Prozesu beraren baitan ulertu behar dira beste azpiegitura batzuk ere: metroarena, lurpean, edota tranbia, lur gainean.

Proiektu horiek gauzatzeko, kanpoko eskultore eta arkitektoengana jo da sarritan, eta haiek ikuspegi askotarikoa laga dute, konponbideei dagokienez; haietariko batzuk plastikoagoak dira,

beste batzuk teknologikoagoak, baina guztiak ere moderno, funtzional eta aurreragarriak. Eta estetikoki ederrak.

Zubizuri

Edo Calatravaren zuba, Santiago Calatrava baita egilea (1997). Hormigoia, zuriz margoturiko tirante metalikoak eta beirazko zorua baliatuz, oinezko-entzako zubi bat egin zuen ingeniariak, organismoaren ildotik.

Guggenheim Museoa

Frank Gehry arkitekto amerikarrak hiriaren ikono unibertsala bihurtu du, denbora laburrean, Bilboko museoa. Mugimenduan dauden forma eta makla bihurriez eraturiko atzealde joria da agerikoena, edota burdinazko egitura estaltzen duten titaniozko plaken ehundura. Antzematen gaitzena, ordea, atondoko lekunea ulertzeko modua eta argia. 1991ean egin zen proiektua, eta nahiko nabaria da Wright-en eragin organizista, interpretazio berria emanik.

Oroimenaren pasealekua

Izen hori ematen zaio ibaiaren ezkerrean hainbat eskulturaz jantzi den hiribide itzaltsuari, Abandoibarran hiritarren jolas eta aisialdirako irabazi den guneari, alegia. Hainbat materialekin egindako hamar eskultura moderno eta oraintsuko jarri dira bere kai eta nasetan, maila ezberdinetan:

«Mamá», Louise Bourgeois-en armi-armea ezaguna (1999), Guggenheimen inguruan. **Begirari IV**, Aita Arrupe zubiaren sarreran bertan, burdinazko obeliskoa da, erreferentziako lau puntutara eta zerura orientaturiko bost leihotxok zulatua; Eduardo Txillidaren lana da. Markus Lüpertz neoexpresionista alemanaren **Judith**, eduki sinbolikoa duen irudi antropomorfoa: margoturiko aurpegiarekin ikuslea limurtzen du. Maia, William Tucker ingelesarena, masa metaliko abstraktua da, emakume haurduna. **Blue de Vire** izena du granitozko bloke baxu batek, Ulrich



Orrialde honetan, goian:

Euskaldun material eta egitura desberdinak txertatzen dira. Metalezko «Baso minimalista» erakinararen osagarri sendoa da.

Orrialde honetan, behean:

Euskalduna. Atzealdeko garabi gorriak gogora dakar toki hau ontziola izan zenekoa.

27. orrialdea:

Begirari IV. Eduardo Txillidaren burdinazko menhirra, 49 tonakoa.



Rückriem-en minimalismo hutsaren adierazgarria denak. Bi kaiku dira Angel Garrazaren «Sitios y Lugares» izenekoak, bata zutik eta bestea etzanik. Dalirena da Terpsikore Dantzaren Musaren jatorrizkoa (1971), Euskalduna jauregiko urmaelaren ondoan flotatzen duen brontzezko irudia; jauregiaren plazan, gainera, burdin harri porotsuez osaturiko sei multzo koniko daude, inguruari ondo egokituriko «land art».

Euskalduna jauregia

Kongresu eta Musika Jauregian, neo-organizismora jo dute Federico Soriano eta Dolores Palacios egileek (1994), maklen elkarketa geometrikoak osatuz eta materialak konbinatuz: hormigoia, kristala eta, batez ere, burdina herdoildua antzokiaren atzealderako, erreferentzia egokia azken hau, jauregiaren lekuan ontziola egon zela kontuan harturik. Zelaiguneko baso minimal metaliko hotza ere aukera ezin hobea da.

Bilboko metroa

Teknologia, hormigoi gordina, plataforma esekiak eta kristalezko kurkuiluak bezalako aho gardenak dira Sir Norman Foster eta Bazkideen kabinete ingelesaren lan bikain honen ezaugarri nabarientzak, (1989).

Hiri zaharra

1. Udaletxea
2. Hustutak esfera
3. Areatza
4. Erribera
5. San Anton eliza
6. Atxuri
7. Erronda Kalea
8. Katedrala
9. Done jakue plazatzoko iturria
10. Fuente del Perro
11. Joanes Santu biak eliza
12. Plaza Barria

Hiri modernoa

1. «Sociedad Bilbaina» elkarte
2. Santanderko geltokia
3. Diego Lopez Harokoaren estatua
4. BBVAren egoitza
5. Foru jauregia
6. Carlton Hotela
7. Montero etxea
8. Txabarri jauregia
9. Sota etxea
10. Areiltza Doktoareen zumarkaleko 10.eko etxea, eta Kale Nagusiko 69-71.ekoa
11. Casilda Iturrizar parkea
12. Jesusen Bihotza
13. Jesusen Lagundiaren eliza
14. Campos antzokia
15. Bosgarren parrokia
16. La Alhóndiga
17. Albia
18. Ibaigane jauregia

Hiri berria

1. Pasarela Zubizuri
2. Guggenheim Museoa
3. Oroimenaren pasealekua
4. Euskalduna jauregia
5. Bilboko metroa

